

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

SEGURTASUN SAILA

3266

EBAZPENA, 2022ko uztailaren 6koa, Segurtasun Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearena, zeinaren bidez jakinarazten baita Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako iragarki-oholean argitaratu dela 2022ko uztailaren 4ko Ebazpena, zenbait kide Ertzaintzaren Oinarrizko Eskalako Agente Kategoriako karrerako funtzionario izendatzen dituen.

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren zuzendari nagusiak 2019ko abenduaren 20an eman zuten Ebazpenaren, Ertzaintzaren Oinarrizko Eskalako Agente Kategorian sartzeko hautaketa prozeduraren deialdiari buruzkoaren, hamaseigarren oinarrian ezarritakoarekin bat etorritik (urtarrilaren 8ko EHAA, 4. zk.), eta Segurtasun Saileko egitura organiko eta funtzionalari buruzko urtarrilaren 19ko 6/2021 Dekretuaren 9. artikulua ematen dizkidan eskumenak direla bide, ondoko hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Jakinarazten da 2022ko uztailaren 5ean argitaratu dela Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako iragarki-oholean Segurtasun Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen 2022ko uztailaren 4ko Ebazpena, zenbait kide Ertzaintzaren Oinarrizko Eskalako Agente Kategoriako karrerako funtzionario izendatzen dituen.

Bigarrena.– Ebazpen honekin ez da amaitzen administrazio-bidea, eta interesdunek, haren kontra, gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaioke Segurtasuneko sailburuari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko uztailaren 6a.

Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea,
MIREN GOITIA GABIOLA.